

2026DZIN0001

Kaleko katuen kontrola

Eskoriatzan, azken sinadura elektronikoaren datan

BILDUTAKOAK:

Alde batetik, **Edorta Zubizarreta Alegria** jauna, Eskoriatzako Udaleko Alkate den heinean, kontratua sinatzeko ahalmenarekin bere karguarengatik eta lege aplikagarriek emandako eskumenengatik.

Eta, bestetik: **Antonia Rodriguez Pazos**, adinez nagusia eta NAN zenbakia duena, Kuxkuxero Katuen Defentsarako Elkartearen izenean eta ordezkaritzan, elkarte horretako lehendakaria denez.

PARTE HARTZEN DUTE:

Edorta Zubizarreta Alegria jaunak Alkate-Udalburu gisa, Eskoriatzako Udalaren izenean eta ordezkaritzan.

Antonia Rodriguez Pazos Kuxkuxero Katuen Defentsarako Elkartearen izenean eta ordezkaritzan, talde horren arduraduna den heinean.

Bi aldeek, honako hitzarmen hau egiteko beharrezko eta behar besteko gaitasun juridikoa eta jardutekoa elkarri onartuta, bi alde horien ordezkari gisa honako hau

ADIERAZTEN DUTE

Lehenengoa. Gaur egun Eskoriatzan 52 kaleko katu daude, 5 kolonietan banatuta. Kaleko katu hauen eboluzio deskontrolatu batek higiene-osasun arazoak sor ditzake eta izurrite arriskuak areagotu.

Bigarrena. Etxeko animaliak babesteko ekainaren 30eko 9/2022 Legearen 28. artikuluko 1. paragrafoan honako hau adierazten da:

Udalak hiriko katu-koloniak kudeatzeaz arduratuko dira; kudeaketa hori animalien HEMI metodoa aplikatuz egingo da (harrapaketa, antzutzea, markaketa eta itzulera). Itzulitako katuek identifikazio-marka bat izango dute, antzu gisa identifikatzeko.

Hirugarrena. Kaleko katuen koloniak HEMI metodoaren bidez kudeatzearen helburua da



animalia horien babesa sustatzea, bai eta haien populazioa behar bezala kontrolatzea ere, esterilizazioaren eta osasun-kontrolaren bidez, horretarako aukerak daudenean.

Laugarrena. Hiriko katuen populazioek hainbat jatorri izan ditzakete, hala nola, arduradunek identifikatu gabeko animaliak abandonatzea, baliabide berrien bila joaten diren beste kolonia batzuetako animaliak, galdutako etxe-katuak eta ohitura ibiltariak dituzten etxeko kateme ez antzutuen kumaldiak, katakumeak etxetik kanpo izan dituztenak. Behin populazioa ezarrita, bertako jaiotza-tasa bera da, hura mantentzen eta handitzen duen elementu nagusia.

Kolonien tamaina eta egokitzapena kontrolatzea da Eskoriatzako Udalak hiriko katuen koloniak baimendu, erregistratu eta kudeatzeko prozedura honekin lortu nahi duen helburua.

Bosgarrena. Etxeko animaliak babesteko ekainaren 30eko 9/2022 Legearen 28. artikuluko 2. eta 3. paragrafoetan adierazten denez: *"Udalek, ahal dela, metodo hori aplikatzen zaien animalia guztien zainketaz, identifikazio-markaketaz eta erroldaz arduratzen diren pertsona eta elkarteekiko lankidetza sustatuko dute. Inola ere ezingo dira kolonian erroldatu identifikazio indibiduala duten eta AIEOn erregistratuta dauden animaliak, horiek abandonatutako animaliatzat hartuko baitira, titularrari dagokion zehapenari kalterik egin gabe.*

Katu-kolonia kudeatzen duen erakundeak edo elkarteak lankidetza-hitzarmen bat sinatuko du dagokion udalarekin, eta bertan sinatutakotik erator daitekeen erantzukizuna bere gain hartuko du."

Seigarrena. Kuxkuxero Katuen Defentsarako elkarteak irabazi asmorik gabeko erakundea da, nortasun juridiko propioa eta jarduteko gaitasuna duena.

Zazpigarrena. Kuxkuxero Elkartearen helburua kale-katuen zein abandonatutako katuen ongizatea bermatzea da.

Zortzigarrena. Aipatutako guztia kontutan izanda, hitzarmen hau sinatzen duten aldeek egokia ikusi dute kaleko katu-koloniak HEMI (harrapaketa, esterilizazioa, markatzea eta itzulera) metodoaz kudeatzeko bete behar diren irizpideak eta baldintzak ezartzea, katuen bizi-kalitatea hobetzeko, gain populazio arazoak gutxitzeko, Eskoriatzako hiri-errealitatean behar bezala integratzeagatik onurak sortzeko eta sozializatzen eta elkarrekin bizitzen laguntzeko.

Bederatzigarrena. Azaroaren 17ko 38/2003 Dirulaguntzen Lege Orokorreko 22. artikuluan, besteak beste, jasotzen da dirulaguntza zuzentzat joko direla toki erakundeen aurrekontuetan nominatiboki aurreikusita daudenak, eta laguntzak ematerakoan horiek arautzen dituzten arauetan eta hitzarmenetan jasotakoaren arabera eman beharko direla.

Hamargarrena. 2023ko abenduaren 21ean, Eskoriatzako Udalaren 2024-2027 Dirulaguntzen Plan Estrategikoa onartu zen. Plan horretan ildo estrategikoak jasotzen dira, bederatzigarrena izanik "Ingurumena" izenekoa.



Lerro horren C programa Kuxkuxero Katuen Defentsarako Elkartearantzako dirulaguntza izenduna da, eta bere helburua da, Eskoriatzako kaleko katuen populazioa zaindu eta kontrolatzeko, elkarre horrek irabazi asmorik gabe egiten duen lanarekin kolaboratzea.

KLAUSULAK

Lehenengoa.- Hitzarmenaren xedea

Hitzarmen honen xedea da bi aldeen arteko lankidetzaren arautzea, Eskoriatzako udalerrian HEMI metodoa ezarri eta gauzatzeko eta, kaleko katuak harrapatu, esterilizatu, markatu eta itzultzeko.

Katuen kolonien kudeaketa integralak Eskoriatzako Udalaren ardura izaten jarraituko du, eta kudeaketa horretan Kuxkuxero Elkartearen parte hartzea Udalarekin lankidetzan izango da, gai zehatzetan eta beti Udalaren zuzendaritzapean.

Bigarrena.- Eskoriatzako Udalak hartzen dituen konpromisoak

Eskoriatzako Udalak konpromiso hauek hartu ditu:

1. Kuxkuxero Katuen Defentsarako Elkarteari 1.000,00 €-rainoko dirulaguntza izenduna ematea, 0100.481.311.00.01 aurrekontu partidaren kontura, kale-katuen eboluzio deskontrolatu batek sortu litzakeen higie-ne-osasun arazoak saihesteko, elikatzeko eremuak kudeatzeko gune publikoak garbi mantenduz eta katuak kontrolatzeko eta izurrite arriskuak ekiditeko.
2. Katuen harrapaketak HEMI metodologiaren barruan egiteko kaiolak Elkarteari lagatzea. Guztira, 2 kaiola.
3. Albaitari baten zerbitzuak kontratatzea HEMI metodologiaren barruan esterilizazioak, egoera orokorraren analisisa, osasunaren zaintza eta kale-katuen markaketa egiteko (baita eutanasiak eta erraustea ere, beharrezkoak izanez gero), gehienez ere 3.500,00€.
4. Elkarteararekin batera, kolonia kontrolatuaren eremuan elikadura-puntuak adostea, eta gune horiek behar bezala egokitzea, seinaleztatzea eta identifikatzea.
5. Kaleko katuak harrapatu, zaindu eta elikatzeko lanak egiten dituzten elkarteko boluntarioentzako egiaztagiria ematea (I. eranskina).
6. Hitzarmen honen arduradun bat izendatzea, jarduketan jarraipena egiteko eta hitzarmen hau betetzean sor daitezkeen gorabehera erantzuteko.

Hirugarrena.- Kuxkuxero Katuen Defentsarako Elkartearen betebeharrak

1. Kale-katuak edo gizakiekin inolako harremanik izan ez duten katuak zaindu eta elikatuko dituzten boluntarioen zerrenda identifikatzea eta Udalari jakinaraztea. Elkarteko kide



guztiek beren borondatez jardungo dute, eta ezin izango dute inolako ordainsaririk jaso beren eginkizunak betetzeagatik.

2. Udalerriko katu-koloniak identifikatzea eta Udalari jakinaraztea: eginda daukan hiri-inguruneko katuen eta katu-kolonien errolda eguneratu eta mantentzea, udalerrriaren mapa, kolonien kokapen zehatza, katu-kolonien egoerari buruzko informazioa, esterilizatutako eta esterilizatu gabeko aleen kopurua eta abar barne hartuta (II. Eranskina).

3. Kale-katuen populazioa kontrolatzeko HEMI metodoaren arabera jardutea:

- a. Harrapaketa: bide publikoan batzea/harrapatzea, Elkartek kolonia kontrolatzeko egiten dituen jardueren barruan eta Eskoriatzako Udalak eskatuta.
- b. Antzutzea. Albaitariarengana eramatea behar bezala antzutzeko.
- c. Markatzea. Katuei identifikazio-markak jarriko zaizkie antzu gisa identifikatzeko.
- d. Itzultzea. Kontrolatutako eta identifikatutako kolonia-eremuan egingo da.

4. Udalarekin adostutako elikadura-puntuak kokatzea eta hauek osasungarritasun- eta higiene-baldintzetan mantentzea. Katuak janari lehorrarekin eta urarekin elikatuko dira.

5. Gaixorik dauden kale-katuak artatzeko albaitari arreta eskaintzea.

6. Asteazken zehar kalean hilda agertzen diren katuak jasotzea.

7. Udalarekin batera, gatazkak konpontzen laguntzea, bizilagunen batek auzotarren arteko bizikidetzak aldatzen duen jokabideak garatzen baditu, katuak edukitzeagatik edo kale-katuak modu irregularrean elikatzeagatik edo ezarritako araudiaren aurkako jarduna izateagatik.

8. Eskoriatzako Udalarekin lankidetzan aritzea katuei buruzko laguntza teknikoko zereginetan, eta hitzarmen honetan jasotako gaiei buruzko kontzientziazio-ekintzak eta herritarrei zuzendutako hezkuntza-kanpainak egiten laguntzea, edo etxeko bizitzara egokitu daitezkeen aleen adopzioa sustatzea.

9. Herritarrak kontzientziatzeko eta sensibilizatzeko kanpainak eta tailerrak egitea, kaleko katuekiko errespetuzko eta erantzukizuneko jarrera indartuz.

10. Martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzaldiko Dekretuaren bidez onartutako Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik gabe Bizitzeko Legearen testu bateginaren 23. artikuluan ezarritakoaren arabera, dirulaguntza jasotzen duten erakundeek hizkera ez-sexista erabili beharko dute aurkezten dituzten memoria, proiektu eta gainerako testuetan. Era berean, genero-estereotipoak errepikatzea saihestu beharko da, eta emakumeen eta gizonen berdintasuna aktiboki sustatu, egiten diren irudi, komunikazio, argitalpen, programa, ikastaro eta abarretan.

11. Hitzarmen honetarako arduradun bat izendatzea, jarduketan jarraipenean laguntzeko eta hitzarmen hau betetzean sor daitezkeen gorabeherei erantzuteko.



Laugarrena.- Hizkuntza betebeharra

Herritarren hizkuntza eskubideak errespetatzearren, Kuxkuxero Katuen Defentsarako Elkartek ondorengo urratsak emateko konpromisoa hartzen du euskararen normalizazioaren alde:

- Herritarrentzako antolatzen dituzten ekintzak (tailerrak, aisialdiko jarduerak, sentsibilizazio kanpainak, ekitaldiak, aurkezpenak, azoka txikiak, informazio postuak...) euskara hutsean izango dira haur eta gazteei zuzenduta badaude, eta gainerakoak, euskaraz edo ele bietan. Ele bietan eginez gero, euskarari emango zaio lehentasuna.

Elkartek, helburu horrekin, bi hizkuntza ofizialetan moldatzeko gai diren pertsonak jarriko ditu ekintza horietan.

- Herritarrentzako idatzizko komunikazioak ere (esku-orriak, kartelak, seinaleak, sare sozialak...) euskaraz edo ele bietan egingo dira. Ele bietan eginez gero, lehentasuna emango zaio euskarazko testuari (kokapena, tamaina...).

Kuxkuxero Katuen Defentsarako Elkartek Udal Euskara Zerbitzuaren laguntza izango du komunikazio horiek itzuli edo zuzentzeko.

Bosgarrena.- Udalak emango duen laguntzari dagokionez

5.1.- Laguntzaren erabilera

Emandako dirulaguntza kale-katuen eboluzio deskontrolatu batek sortu litzakeen higie-ne osasun arazoak saihesteko, janaria emateko eremuak kudeatzeko gune publikoak garbi mantenduz, katuak kontrolatzeko eta izurrite arriskuak ekiditeko erabiliko da.

5.2. Diruz lagun daitezkeen gastuak

1. Diruz lagun daitezkeen gastutzat hartuko dira diruz lagundutako jardueraren izaerari zalantzarik gabe erantzuten diotenak: HEMI metodoaren bidez katu-kolonien populazioa kontrolatzeko behar beharrezkoak direnak, eta kolonietako animalien bizi- eta elikadura-baldintzak hobetzeko direnak.
 - a. HEMI metodoa ezartzeko gastuak:
 - i. Antzutzeak egiteko gastuak.
 - ii. Tranpa-kaiolak edo katuak harrapatze eta garraiatzeko bestelako materialak erosteko inbertsioa.
 - b. Katu kolonietako katuen albaitaritza-tratamendurako gastuak:
 - i. Katuen parasitoak kentzeko eta txertoak jartzeko gastuak.
 - ii. Zauritutako edo gaixotutako katuen albaitaritza-arretako gastuak.
 - c. Udalerrian dauden katu koloniak egokitze gastuak:



- i. Koloniarako altzarien eta elikadura-sistemen gastuak.
- ii. Koloniak mantentzeko pentsu gastuak.

5.3.- Beste laguntza batzuekin pilatzeko aukera eta finantzazio mugak

Emandako dirulaguntza bateragarria izango da helburu bererako Udalak edota beste erakunde publiko edo pribatuek emandako dirulaguntzarekin. Hala ere, inolaz ezin izango da onartu gain-finantzaziorik. Horrelakorik gertatuz gero, emandako dirulaguntza murriztu egingo da diruz lagundutako ekintzaren kostu totalaren mugara.

5.4.- Dirulaguntza ordaintzeko epeak

1. Dirulaguntza eman eta zehaztutako kopuruaren % 60 ordainduko da hitzarmena sinatzean; hurrengo dokumentazioa telematikoki aurkeztu eta udal zerbitzuek egiaztatu eta gero:
 - a. Eskatera orria. Orrian bertan aitortu beharko ditu honako hauek (onartu ezean, horiei buruzko dokumentazio espezifikoak aurkeztu beharko da):
 - i. Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak eguneanizatea.
 - ii. Ez duela hasita edo tramitean administrazioari dirua itzultzeko inolako prozedurarik.
 - iii. Ez duela jarduera bererako beste dirulaguntzarik eskatu. Eskatu badu, horri buruzko dokumentazio espezifikoak aurkeztu beharko da.
 - iv. Ez duela sexu-diskriminazioagatik edo emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan indarrean dagoen eta aplikatu beharrekoa den araudia urratzeagatik administrazio-zigorrik, ez zigor penalik.
 - v. Ez duela 38/2003 Legearen 13.2 eta 13.3 ataletan jasotako debekurik.
 - b. Jardueren programa, ondo azalduta zer egin nahi den, lortu nahi diren helburuak eta ekitaldi eta egitasmoaren hizkuntza.
 - c. Aurrekontua.
2. Gainerako % 40a, organo eskudunak dirulaguntzaren kitapena onartutakoan ordainduko da, diruz lagundutako jarduerak erabat eta zuzen justifikatutakoan, hitzarmenaren indarraldiaren amaiera-dataren ondorengo 15 eguneko epearen barruan. Horretarako, ondorengo dokumentuak aurkeztu beharko dira euskarri digitalean Udal Erregistro Orokorrean:
 - 1) Eskatera orria.
 - 2) Jarduera egin dela eta helburuen betetze maila egiaztatzeko txostena, gutxienez atal hauek izango dituenak:
 - i. Katuetan egindako jarduketak (artatutako katu zaurituak,



esterilizatuak, erraustuak, adopzioan emandakoak).

ii. Baimendutako kolonia bakoitzaren egoerari buruzko informazio eguneratua: errolda, animalia antzutuen eta antzutu gabeen kopurua.

- 3) Dokumentazio grafikoa (kartelak, liburuxkak, banatutako idatzizko materiala, prentsa oharrak eta abar).
- 4) Diruz lagundutako jardueran izandako sarreraren eta gastuen balantzea.
- 5) Ziurtagiria diruz lagundutako jarduerarako jasotako dirulaguntzei eta gainerako sarrerei buruz, horiek balantzean jasota edo jaso gabe egotea kontuan hartu gabe.
- 6) Jardueraren gastuen zerrenda sailkatua honako hauekin: hartzekodunaren identifikazioa, faktura zenbakia edo froga-balio baliokidea duen dokumentua, zenbatekoa, fakturaren data eta ordainketa eguna.
- 7) Jardueragatik egindako gastuen jatorrizko fakturak (ordainketa egiaztatuta) behar bezala beteta edo horien fotokopiak. Diruz lagundutako jarduera osoarengatik aurkeztu beharko dira fakturak, nahiz eta Udalak emandako dirulaguntza hasierako aurrekontua baino txikiagoa izan.

Fakturek, gutxienez, honako hauek izan beharko dituzte:

- Faktura egiten duen enpresa edo pertsona fisikoaren datu guztiak: izena, helbidea, IFK edo NAN.

- Elkarrekin ordaintzeko jaulkitako fakturak izan beharko dira, eta bertan jaso beharko dira bere izena, helbidea eta IFK, kontzeptua, unitateak, koste totala unitateko, koste totala eta BEZ banakatua edo BEZ barne den, faktura zenbakia, jaulkipen data eta ordainketa modua. BEZa salbuetsita duten operazioetan hori egiteko arauaren erreferentzia jaso beharko da. Ez da onartuko fakturarik pertsona fisikoen izenean.

Gastuak justifikatzerakoan aurkeztutako fotokopietan izandako faltsukeriagatik, zehaztasun ezagatik edo akatsengatik egon daitezkeen gorabeherak zigortu egingo dira dirulaguntza kitatzerakoan.

Fakturen edo ordainagirien data jardueraren exekuzio aldiaren barruan egon beharko da. Exekuzio aldiaren aurreko data duten fakturak bakarrik onartuko dira programaren jarduerak garatzeko aurrez ordaindu behar izanez gero.

Justifikazio-betebeharra ez betetzeak edo behar beste ez justifikatzeak berekin ekar dezake jasotako zenbatekoak itzultzea, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 37.1 artikulua araberak.

Seigarrena.- Jarraipen batzordea



Bi aldeek beharrezkotzat jotzen dute hitzarmenaren jarraipen batzordea eratzea. Aurreikusitakoa eta hartutako konpromisoak betetzen direla zainduko du batzordeak eta, orokorrean, etorkizunean gertatu litezkeen auziez arduratuko da.

Batzorde horretako kide izango dira:

Udalaren aldetik: Ingurumen Garapenerako teknikaria eta udaltzaina.

Kuxkuxero Katuen Defentsarako Elkartearen aldetik: elkartearen ordezkaria.

Zazpigarrena.- Aldeek bere gain hartutako betebeharrak eta konpromisoak ez betetzetik eratorritako ondorioak.

Hitzarmenaren sinatzaile batek bere gain hartutako betebeharrak eta konpromisoak ez betetzea hitzarmena suntsiarazteko arrazoia izango da, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 51.2 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Hitzarmena sinatu duten aldeetako edozeinek errekerimendu bat jakinarazi ahal izango dio bete ez duen aldeari, epe jakin batean bete ez direla uste diren betebeharrak edo konpromisoak bete ditzan. Errekerimendu horren berri emango zaio Jarraipen Batzordeari.

Errekerimenduan adierazitako epea igaro ondoren, salatu den ez-betetzeak jarraitzen badu, hura abiarazi zuen aldeak suntsiarazteko arrazoia dagoela jakinarazi beharko du, eta, horren ondoren, hitzarmena suntsitutzat joko da.

Hitzarmena ez betetzeagatik suntsiarazteak egiaztatuta geratzen diren kalteen kalte-ordaina ekarri ahal izango du.

Zortzigarrena.- Hitzarmenaren indarraldia

Hitzarmen hau sinatzen den egunean sartuko daindarrean eta 2026ko abenduaren 31 arte iraungo du. Ezin izango da luzatu.

Bederatzigarrena.- Izaera

Urriaren 1eko 40/2015 Legearen 47. artikuluen arabera, hitzarmen honen izaera juridikoa administratiboa da, eta, ondorioz, hitzarmenaren aplikaziotik, interpretaziotik, aldaketatik, ondorioetatik eta ebazpenetik auziak edo eztabaidak sortuko balira, administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak dioenaren arabera ebatziko dira.

Eta, ados daudela adierazteko, alde biek hitzarmen hau sinatzen dute ondorio bakarrerako, goiburuan adierazitako lekuan eta egunean.



I. eranskina : KUXKUXERO Elkarteko boluntarioen identifikazioa

Eskoriatzako herrigunean kaleko katuak zaintzeko eta elikatzeko zereginetan KUXKUXERO elkarteko bazkide, boluntario edo laguntzaileen identifikazioa arautzen da.

- Identifikazioa txartel izendun batean gauzatuko da, eta bertan egiaztatuko da pertsona Kuxkuxero elkarteko bazkidea, boluntarioa edo laguntzailea dela kale-katuak zaindu eta elikatzeko lanetan.

- Txartela, formatu elebidunean, Eskoriatzako Udalak emango du. Bertan, izena, abizenak, NANA eta baliozkotasun-data, udal-ikurra eta Kuxkuxero elkartearen izena, bere logotipoarekin. Era berean, behar bezala ikusteko moduan agertuko da "elikatzailea/zaintzailea HEMI metodoa" izena. Txartela udalaren jabetzakoa izango da, eta erabilera pertsonala eta besterenezina izango du.

- Kuxkuxero elkarteak, aldizka, boluntarioen, laguntzaileen edo bazkideen zerrenda bat bidaliko dio udalari, bere ustez, eta C.E.R. metodoa behar bezala ezagutzen duela egiaztatu ondoren, txartel hori merezi badu.

- Datuak babesteko araudia betetzeko (15/1999 Lege Organikoa, abenduaren 13koa, Datu Pertsonalak Babesteari buruzkoa, eta 994/1999 Errege Dekretua, ekainaren 11koa, datu pertsonalak dituzten fitxategi baimenduen segurtasun-neurriei buruzko araudia onartzen duena), Kuxkuxero Elkarteak araudi hori eta, bereziki, boluntarioari idatziz eta behar bezain argi jakinaraziko dio bildutako datuak Eskoriatzako Udalari jakinaraziko dizkiola, hitzarmen honetan ezarritako helburuarekin.

- Txartela edukitzeak ez du eragotziko udaltzainek eta udal-langileek, kaleko katuak zaintzeko edo elikatzeko modua desgokia dela egiaztatuz gero, jokabidea bertan behera uzteko eskatzea. Era berean, interes publikoko arrazoiengatik edo justifikatutako beste edozein arrazoiengatik, elikadura- edo zaintza-jarduera puntu edo ingurune jakin batean aldatzeko edo bertan behera uzteko eskatu ahal izango du agintariak. Era berean, agintariak, zuzenean edo Kuxkuxero elkartearen bidez, txartela erabiltzeko modu desgokian jarduten duen edonori eskatu ahal izango dio txartela ematea.

ELIKATZAILEA/ZAINATZAILEA HEMI
ALIMENTACION/CUIDADO C.E.R.

IZENA

NOMBRE

ABIZENAK

APELLIDOS

NAN

DNI

Kuxkuxero **elkartea** **KO BOLONDRESA NAIZ**

Txartel honen erabilera pertsonala eta besterenezina da. Aurkitzen baduzu, utzi ezazu udaletxean, bere jabeari bueltatzeko.




II. eranskina: Kuxkuxero elkarteak aurkeztutako memoria

**Memoria: Eskoriatzako kale-
katuen errolda.**

Kuxkuxero Katuen Defentsarako Elkartek udaletxearekin batera kale-
katuei jaten emateko guneak egokitu
ditu. 2025. urte amaieran jarritako
janari banatzaileak egokitzen dihardu
eta kolonia ezberdinak gune hauetara
mugatuko ditu:

**Memoria: Censo de gatos
callejeros.**

Kuxkuxero Katuen Defentsarako
Elkartea, junto al Ayuntamiento, ha
habilitado zonas para dar de comer a
los gatos callejeros. Los dispensadores
de alimentos instalados a finales de
2025 están en proceso de adaptación y
limitará las diferentes colonias a las
siguientes zonas:




Vista general de Eskoriatza y los sitios en los que se ubicarán las colonias.

- Ibarraundi Museoa (Museo eta Polikiroldegi inguruko katuentzako).
- En el Museo Ibarraundi (para los gatos del Museo y polideportivo).



- Hilerriaren ondoko parkean (Hidalga, Hotela eta Anbulategiko katuentzako).
- Cerca del cementerio (para los gatos de Hidalgo, Hotel y Ambulatorio).



- Unibertsitate ondoko konpost tokian (Aranburuzala eta Tesa inguruko katuentzako).
- En la zona de compostaje cerca de la Universidad (para los gatos de Aramburuzabala y Tesa).



- Santa Ana Plazan (Elizoste, Arbiñoste, Alkazar eta Benta-Motz inguruko katuentzako).
- En la Plaza Santa Ana (para los gatos de Elizoste, Arbiñoste, Alcazar y Benta Motz).






Detalle de la zona



- San Pedro parkean.
- Parque San Pedro



Guztira, Eskoriatzan 52 kaleko katu daude, 35 eme, 12 ar eta sexurik ez dakigun beste 5. Hauetatik 10 kateme daude antzututa eta 3 katar (ikus atxikitutako taula). 2025. urtean zehar jaio diren katu gehienak adopzioan eman ditugu antzutu eta bakunatu eta gero.

En total, en Eskoriatza hay 52 gatos callejeros, 35 hembras, 12 machos y otros 5 de los que no sabemos el sexo. De estos, 10 gatas hembras y 3 gatos machos están esterilizados (ver tabla adjunta). La mayoría de los gatitos nacidos a lo largo del año 2025 han sido dados en adopción tras su esterilización

y vacunación.

2026. urteko erronka falta diren kaleko katuak antzutzea izango da. Denak harrapatzea ezinezkoa izango zaigu baina plangintza bat egingo dugu, antzutzeak modu ordenatuan egiteko eta honela kaleko katuen populazioaren hazkuntzarik ez gertatzeko.

El reto del año 2026 será esterilizar a los gatos callejeros que faltan. Nos será imposible capturarlos a todos, pero haremos una planificación para hacer esterilizaciones de forma ordenada y evitar así el crecimiento no deseado de la población de gatos callejeros

Nombre/Izena	Colonia/Kolonia	Sexo/Sexua	Edad/Adina	Color/kolorea	Raza/Arraza	Esterilizado/Antzututa	Otros detalles/Beste detaille batzuk	Foto/Argazkia
Intxaurtxueta/Polideportivo								
Bengalina	Intxaurtxueta	Hembra		Tricolor-negro-gris-blanco	Bengali	No	Aparece de vez en cuando	
Borobile	Intxaurtxueta	Hembra		Tricolor-	Bengali	No	Hija de Bengalina	
Blanquita	Intxaurtxueta	Hembra	19/02/2024	Bicolor-Amarillo-blanco	Europeo común	No		
Manchita	Intxaurtxueta	Hembra		Bicolor-Amarillo-blanco	Europeo común	No	Madre de Blanquita. 2024/05/XX 3 gatitos (2 rubias y uno gris)	
Pelona	Intxaurtxueta	Hembra		Bicolor-Amarillo-blanco	Europeo común	No		
Rubian	Intxaurtxueta	Macho		Bicolor-Amarillo-blanco	Europeo común	No		
Tigresa	Intxaurtxueta	Hembra		Bicolor-Gris-blanco	Europeo común	Si	Castrada 31/10/2024	
Arbifoste								
Larala	Arbifoste	Hembra	04/2024	Naranja	Europeo común	Si		
Fumanchu	Arbifoste	Hembra	04/2024	Negro	Europeo común	No	Bigote blanco, hermano de Larala	
San Pedro 17								
Bolita	San Pedro	Hembra	07/2024	Tricolor-Negro-gris-blanco	Europeo común	No	Hija de Princesa	

Melina	San Pedro	Hembra	06/2024	Negro	Europeo común	No	Ha desaparecido	
Princesa	San Pedro	Hembra	2019	Tricolor-Negro-gris-blanco	Europeo común	No	Tamaño medio, delgada	
Blanqui	San Pedro	Hembra	2025	Tricolor-Negro-gris-blanco	Europeo común	No	Hija de Princesa	
Tri	San Pedro	Hembra	2025	Tricolor-Negro-gris-blanco	Europeo común	No	Hija de Princesa	
Naranja	San Pedro	Hembra	2025	Tricolor-Negro-gris-blanco	Europeo común	Embarazada	Hija de Princesa	
Grís	San Pedro	Macho	2025	Tricolor-Negro-gris-blanco	Europeo común	No	Hijo de Princesa	
Mama sin rabo	San Pedro	Hembra	2018	Negro	Europeo común	SI	Sin rabo, tamaño pequeño	
Grandullon	San Pedro	Macho	2016	Bicolor-Negro-blanco	Europeo común	No	Hijo de Viejita	
Katin Lover	San Pedro	Hembra	2016	Bicolor-Amarillo-blanco	Europeo común	SI	Un ojo afectado por una infección.	
Rubia	San Pedro	Hembra	2025	Bicolor-Negro-blanco	Europeo común	No		
Rabo torcido	San Pedro	Macho	2025	Bicolor-Negro-blanco	Europeo común	No		
Rubito	San Pedro	Macho	2025	Bicolor-Negro-blanco	Europeo común	No		

Alcazar									
La Triñi	Santa Ana/ paseo	Hembra	2019	Tricolor Negro-naranja-blanca	Europeo común	No			
La Loca	Santa Ana / Lavadero	Hembra	2018	Bicolor-Negro-blanco	Europeo común	Si			
La Panchi	Santa Ana /Alcazar	Hembra	2022	Bicolor-Naranja-blanco	Europeo común	Si			
Hidalga/Telefónica									
Sua	Hidalga	Hembra	2021	Bicolor-Naranja-blanco	Europeo común	No			
Mantxo	Hidalga	Macho		Negro	Europeo común	Si			
Gorri	Telefónica	Hembra	2024	Bicolor-Naranja-blanco	Europeo común	No			
Guapa	Telefónica	Hembra	2023	Tricolor-Negro-gris-blanco	Europeo común	Si			
Gau	Telefónica	Hembra	2024	Negro	Europeo común	No			
Ilargi	Telefónica	Hembra	2023	icolor-Marron-amarillo-blanco-negr	Europeo común	No			

Iletxu	Hembra	2023	Tricolor-Negro-gris-blanco	Europeo común	No		
Ilun	Hembra	2024	Negro	Europeo común	No		
Itzal	Macho	2024	Negro	Europeo común	Si		
Potole	Macho		Bicolor-Negro-gris	Europeo común	Si		
Xiam	Hembra	2024	Gris	Europeo común	No		
Elkoste							
5 gatos			Negro, gris, atigrados	Europeo común	No		
Benta-Motz							
Mami Pelusa	Hembra	06/2023	Bicolor-negro-blanco	Angora	Si		
Hotel							
Mechoncita	Hembra	2020	Negro	Europeo común	No		
Tuerto	Hembra	05/2024	Negro	Europeo común	No		
Llorona	Hembra	05/2024	Negro	Europeo común	No		
Beixi	Hembra	05/2024	Negro	Europeo común	No		
Ambulatorio							
Cabezon	Macho		Tricolor-Negro-gris-blanco		No		
Aranburuzabala/Tesa/Zubia							
Grixa	Hembra		Bicolor-Gris-blanco	Siames	No		
Mtu	Hembra		Negro	Europeo común	Si		
Rublo	Macho		Bicolor-Amarillo-blanco	Europeo común	No	Adulto	
Panfer	Macho		Negro	Europeo común	No	Adulto	

Duquesa Honey	Aranburuzabala Aranburuzabala	Hembra Macho	2023	Tricolor-Marron-amarillo-gris Tricolor-Marron-negro-gris	Europeo común Europeo común	Si No	Esterilizada 2024/11/21	
Total 52		35 hembras 12 machos 5 se desconoce				10 hembras 3 machos		

2026DZIN0001

Control de gatos callejeros

En Eskoriatza, a la fecha de la última firma electrónica

REUNIDOS:

De una parte, D. Edorta Zubizarreta Alegria, en su condición de Alcalde del Ayuntamiento de Eskoriatza, facultado para la firma del contrato por razón de su cargo y de las atribuciones conferidas por la legislación aplicable.

Y de la otra, Antonia Rodriguez Pazos, mayor de edad, con DNI en nombre y representación de Kuxkuxero Katuen Defentsarako Elkartea, en su calidad de Presidente de la misma.

INTERVIENEN:

Edorta Zubizarreta Alegria, en su condición de Alcalde-Presidente, en nombre y representación del Ayuntamiento de Eskoriatza.

Antonia Rodriguez Pazos, en nombre y representación de Kuxkuxero Katuen Defentsarako Elkartea, como responsable de la misma.

Ambas partes, reconociéndose capacidad jurídica y de obrar necesaria y suficiente para la celebración del presente Convenio, en su representación

MANIFIESTAN

Primero. En la actualidad, en Eskoriatza hay 52 gatos, distribuidos en 5 colonias. Una evolución descontrolada de estos gatos callejeros puede generar problemas de higiene y salud y aumentar los riesgos de plagas.

Segundo. El párrafo 1 del artículo 28 de la Ley 9/2022, de 30 de junio, de protección de los animales domésticos, señala que:

Los Ayuntamientos serán los responsables de la gestión de colonias felinas urbanas; dicha gestión se realizará a través de la aplicación del método CER —captura, esterilización, marcaje y retorno— de los animales. Los gatos devueltos llevarán una marca identificativa para identificarlos como estériles.



Tercero. La gestión de colonias de gatos callejeros mediante el método CER tiene como objetivo fomentar la protección de estos animales, así como el adecuado control de su población mediante esterilización y control sanitario cuando existan posibilidades para ello.

Cuarto. Las poblaciones de gatos urbanos pueden tener diferentes orígenes, como el abandono de animales no identificados por los responsables, animales de otras colonias que acuden a buscar nuevos recursos, gatos caseros perdidos y las crías de gatas domésticas no esterilizadas de costumbres itinerantes que hayan parido fuera de casa. Una vez establecida la población, su tasa de natalidad es el principal elemento que la mantiene y aumenta.

El control del tamaño y adecuación de las colonias es el objetivo que persigue el Ayuntamiento de Eskoriatza con este procedimiento de autorización, registro y gestión de colonias de gatos callejeros.

